KARKARA

ONGIKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2010eko ekainaren 22a / 183. zenbakia

183 A.

- ONTUAK Argazki liburua kalean 05
- Bkoak partida guztiak irabazita 08
- KARRIZKETA Jasone Irigoien 10
- AIAKO LEIHOA Mariela Otero 12
- IRITZIA Jon Amenabar 16
- HERRITARRA Jon Albuerne 21

Harriekin maisu, Luis Atxega 'Alde'

Hasieran aitak harria jasotzen uzten ez bazion ere, burugogorra izan Luis eta 1940-50 tarte horretan harrijasotzaile onena izatera heldu zen.

ARGAZKIA: KARKARA

APAINDU ETA ZAINDU ZURE ETXEA

Lizaso Altzariak
Eusko Gudari, 46 Tfnoa: 943 83 07 84
Alta Lertxundi,6 Tfnoa: 943 13 33 01

AHOLKULARITZA
Fiscala, laborala, kontablea
Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA
IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Pinturak ELKAR
pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa
Abendaño industrialdea
943 83 08 45 / 619 60 23 35
ZARAUTZ

Joana Murgiondo
Aseguru-agenlea
ASEGURUAK
C C I
CARASA, CILVETI, LACOAT Y CIA. S.A.
Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

LUXARBE
igeltseritza
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.
Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe
Lan txukuna eta merkea
Tfnoa: 943 83 59 00

olariaga aholkularitza, s. l.
aholkularitza fiskala eta laborala
enpresa eta partikularrentzat
ASEGURUAK
BEREZITASUNA: enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
Baxoalde, 4 behea T.: 943 13 37 20 / Fax.: 943 83 52 98
e-mail: olariaga@olariaga.com

PERTSIANAK
AKOMAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 83 29 01 Muyikorta 600 70 52 27

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe
aseguru artekaria tel: 943 89 40 29
finka administratzailea faxa: 943 83 54 98
gestoria itsasadarra@euskalnet.net
Alta Lertxundi, 27 behea ORIO

tel/fax: 943 89 00 69
Araba kalea, 25 *20 800 ZARAUTZ
URBIDE
ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Presupuestoak konpromisorik gabe

leiho isolatzaileak
LEIHOLAN
ORIO
PVC
ALUMINIOA
RPT
ERAKUSKETAK
Fabrika
Erribera, 2
AIZARNAZABAL
Geltoki, 26
LASARTE 943 37 72 64
Alta Lertxundi, 21
ORIO 943 83 46 36

aroztegia
MIRANDA
tarima, ate, leiho, estaldura...
bolar dinn aotz lanak
egingo dizkizugu
Urdaneta bidea, 1 *669 42 32 70* ZARAUTZ

Allianz
Marigre Zaldua
aseguru agentea
Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-mailia: zaldua.delaoruz.pa@allianz.es

LERTXUNDI
Altzariak - Dekoraziua
Jose Mª Genoba
DEKORADORA
Eusko Gudari 10, 20810 ORIO - Tel./Fax: 943 13 09 99

ACTIVA Akobe
ELEKTRAGAILLIAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Juan Albizu
Abeslari, 6 - Tel./Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27
karkara@topagunea.com

Editorea
KARKARA taldea kultur elkartea

Zuzendaria
Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua
Enenitz Odriozola

Erredakzio taldea
Jon Agirresarobe, Pat Cowie, Olatz Elustondo, Miren Etxeberria, Jakes Goikoetxea, Ana Iturain, Jaione Manterola, Ainara Peña, Patxi Uranga eta Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa
Eli Lasa eta Nerea Zukiaga

Publizitatea
Jaione Manterola

Publizitatearen diseinua
Edurne Irigoien

Testuen zuzenketa
Miren Etxeberria eta Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak
Iñaki Gurrutxaga, Mariela Otero, Iñaki Iturain eta Jon Armenabar

Argazkien digitalizazioa
Ana G. de Txabarri

Diseinua
KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzaileak
Eva Alonza (Orio)
Amaia Asencor (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 2.850 ale

KARKARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

KARKARAn agertzen dituzte berriak daitezke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Virgen Carmeli gogoan

2004.5.1, Orion, GR4 txapelketa. Virgen Carmeli omzirik bizirik atertako marinelaren bertsoak.

Donostitik Oriora
umorerik onenean
halaxe etortzen ginen
beti edo gehienean
azken estazioa zen
bizitza honen trenean
hainbat gizon geratu zen
betirako, azkenean.
Ni bizirik irten nintzen
neronen zorionean
haiek han geratu ziren
itsasoaren menean
hain sentipen arraroa
izaten da barrenean
tristura ta poza hola
nahastu ohi direnean.

Lainoetako euriak
amaitu ohi du errekan,
erriora ailegatu
ta hil itsasoan bertan.
Holakoetan lainoak
gelditzen dira penetan
sentipena berbera zen
Orioko sendietan.
Donostitik sartu ginen
iluntzeko langarretan...
baina ezin dut gatza bota
gauero zauri zaharretan.
Gauza bera ikusten dut
aldiro barra horretan...
arimak datoz igeri
olatuen aparretan.

IÑAKI GURRUTXAGA



LAGUNTZAILEAK

Orioko Udala

Aiako Udala

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Diputazioa

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	10,00 €
Bi modulu	20,00 €
Hiru modulu	30,00 €
Lau modulu	40,00 €
Sei modulu	60,00 €
Zortzi modulu	80,00 €
Orrialde erdia	100,00 €
Orrialde osoa	170,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	13,00 €
Bi modulu	26,00 €
Hiru modulu	39,00 €
Lau modulu	53,00 €
Sei modulu	79,00 €
Zortzi modulu	106,00 €
Orrialde erdia	145,00 €
Orrialde osoa	255,00 €

Publizitatea kontratatzeko, hitz egin Jaione Manterolarekin
(KARKARAn edo 600 711 288)
Prezio hauei BEZa gehituko zaie.

Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi dizkiegu igandean EAJ-EA koalizioari botoa eman zioten oriotar guztiei. Berriro konfiantza eskaini diguzue, ,eta, horregatik, orain arte bezala, herriaren alde lanean segituko dugu.

ORIOKO EAJ

Salbatore: 40 urte, milaka lore

'Milaka lore, zurekin gaude'. 1965-2005, 40 urte gelditu gabe lan eta lan. Francoren garaian ereindako haziek fruitua eman dute. Garajeak, fraile eta mojen lokalak, Pilartxo Enea, Alfa zaharra, Ikastola berria, 'bidetxurreko' abenturak, Ispillaren olagarrolehorren usaina, Julianen urbanoa, zumaiar eta getariarren autobusa, oriotarrena, plaieroak... Makina bat kontu baditugu ikastolatik pasatakook berriketarako. Afaria eta festa antolatu dugu 40. urteurren honetan. Ikasle ohi, irakasle ohi eta 'ohiko' irakasleak batuz, 25. urteurren hartako giroa errepikatu nahi dugu. Horretarako, maiatzaren 7an, larunbatean, Zarauzko Gaztelekuan elkartzea pentsatu dugu.

Garai haietan gure artean oriotarrak izatea oso ohikoa zen. Lehendabizi Pesan etortzen zineten, gero zuen autobusean. Jangela ere zuek inauguratu zenuten, sukaldari oriotar eta guzti: Lupe Carretero. Ezin ahaztu Mario Atorrasagastiren laguntza ere. Hasieran Duque Hotelean bazkaltzen zenuten dotoredotore.

Afaria 21:00etan hasiko den arren, festa lehenagotik izango dugu: 20:00etan Musika Plaza inguruan bertsolari eta trikitilariekin poteoa hasiko da, ondoren altzalatrauka batean kiroldegi aldera hurbiltzeko. 'Goazen denok batera' kantatu ostean, tripa ondo beteta, festak bere jarraipena izango du: bertsolariak, dantzariak, txalaparta, 'Makala' DJ, Piru eta Peliren Performancea...

Beraz, topaketa horretan parte hartu nahi duzuenok txartelak 22 eurotan salgai izango dituzue apirilaren 18tik 30era Orioko ikastolako idazkaritzan.

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAren helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (Kultur Etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@topagunea.com

KARKARAk ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin joango da; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAk bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Ez gara berdinak

Inoiz jarri al zara gurpil-aulkian ibili behar duten pertsonen lekuan? Seguru asko, ez. Neu ere, etxean aita ikusi arren, askotan ez naiz jabetzen zenbateraino diren gauzak ezberdinak. Egunen batean, agian, aulkian dagoen bat animatuko zaigu ezberdintasun horiek guztiak erakusten. Baina, bitarte horretan, denok berdinak garela aldarrikatzen dugun garai hauetan, samina eta harridura adierazi nahi dut hauteskunde oro aldarrikapen hori betetzen ez dela ikustera behartzen nautelako.

Bitxikeria modura kontatzen nien lagunei nola udaletxea berritu aurretik hauteskutxa kalera jaitsi behar izaten zioten aitari. Edota harrigarria zela 10 urte bete dituen Kultur Etxeak ezinduentzat sarrera atzeko kalean ezkutuan izatea.

Azken hausteskundeetan ere Kultur Etxean tokatu zitzaigun etxekooi botoa ematea eta atzetik sartu ginen kontuzkontuz aulkiarekin atea ez markatzeko. Gauzak horrela, aurreko igandean ere aita Kultur Etxe atzera eraman genuen bertatik sartzeko asmotan. Iritsi ginenean, atea itxita zegoela konturatu ginen; beraz, barrura sartu nintzen atea irekitzeko eskatzera. Betikoa genuen, berriz: inork ez zekien giltza non zegoen. Kutxatxoa kalera atera eta sarrerako ertzainen begiradapean botoa eman zuen aitak.

Ez diot inori errurik bota nahi, hori ez da nire helburua. Eskaera bakarra egin nahi dut: horrelako txikikeriekin mina hartzen dugula konturatzea. Horrelako uneak baitira berdinak ez garela gogorarazten digutenak, eta ongi gogoratu ere.

AINHOA ZUMETA

BITARTEKO ONA GERTUKO GIZARTEAREN MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO

Argazki zaharren liburua kaleratuko du laster Udalak

Iñaki Iturainek inguru hurbila du idazteko gaia, eta hau da Orio eta oriotarrak oinarri hartuta idazten duen laugarren liburua.

Iñaki Iturain bere seme Anbxoni argazki zaharren liburua erakusten. KARKARA

Oraingoan, argazki zaharrekin eta horien gaineko kontakizunekin Orioren 120 urteko historia kontatuko digu Iturainek argazki-liburu interesgarrian. Liburua Udalak argitaratuko du eta aurkezpena maiatzaren 5ean izango da, 19:00etan Kultur Etxean.

Argazki asko Kutxaren fototekatik hartu ditu, eta beste batzuk KARKARAtik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak duen Ojangurenen bildumatik, besteak beste. 359 argazki gaika sailkatu ditu guztira, bildutakoak askoz gehiago ziren arren. Arraunekoak ere badaude, baina *Hemengo gizartean duen baino garrantzia gutxiago eman diot arraunari argazki kopuruari dagokionez.* —esan digu Iñakik— *Bestelako publikazioetan gal horrek izan duelako bere isla eta izango duelako gero ere.* Argazki horietatik guztietatik Orion egindako zaharrena 1888. urtekoa da. Fotografia bakoitzak azalpenak ditu eta, ahal denean, egilea zein den ere zehazten da; Ramiro eta Sanchez Orioko argazkilarien lanak ere badira.

MUTRIKUN IDEIA

Liburua idazteko ideia orain 14 bat urte bururatu zitzaion, Mutrikun zegoela, esku artera tankerako liburua iritsi zitzaionean. Orduan, KARKARAN zebilen eta, aldizkarikoek deialdia zabaldu zuten herrian, argazki zaharren bilduma osatzeko. Iñaki ere, bere aldetik, orduan hasi zen han eta hemen argazkiak biltzen eta, haien bidez, herriko istorioak jasotzen.

Libururako lanean orain 13 urte hasi bazen ere, proiektuak ez zuen orduan aurrera egin eta orain bi urte, emazteak, Evak, bultzatuta, berriz ekin dio lanari, Udalaren laguntzarekin. *Orain egin dugun bilduma orduan egingo genuena baino 10 aldiz hobea da; hau zen momentua, eta liburua, nire ustez, askoz osatuagoa kaleratuko da* esan digu Iturainek.

BITARTEKO ONA

30 urtetik beherakoek oriotar gizartearen erdia osatzen dute, eta horientzat argazkiek berek zuzenean ikusi gabeko egoerak azaltzen dituzte.

Horretaz gain, liburua bitarteko ona izango dela uste du Iñakik gertuko gizartearen memoria historikoa berreskuratzeko. *Oroimenean gauza asko galduta egoten dira, eta horrelako zerbait ikusteak emozioa sortzen badizu, gauza asko etortzen dira gogora, baina momentuan.* Ituraini inportantea iruditzen zaio momentu hori aprobetxatzea eta helduak haurrekin eta gaztetxoekin elkartzea dakitena kontatzeko.

Zorionak, Iñaki!

Gogo handiak ditut zure obra ezagutzeko, Iñaki. Oso interesgarria eta zirraragarria iruditzen zait gure herriaren eta gure aurrekoen historia irudien bitartez ezagutu ahal izatea.

Horretaz gain, legatu garrantzitsua izango dela iruditzen zait gure seme-alabentzat; izan ere, horiek gure historia ahoz aho kontatu dietelako dakite, bai gurasoek edota aiton-amonek kontatu dietelako; baina orain aukera izango dute horri irudiak gehitzeko.

Lerro hauen bitartez lehendabizi Iñaki zoriondu egin nahi dut; eta gero, animatu, bide berean orain arte bezala jarrai dezan.

MAITE GARCIA | ARGAZKILARIA

MIRARI ARRUABARRENA EZ DA GASTEIZKO LEGEBILTZARREAN IZANGO

EAJ behera, baina garaile; EHAK eta PSE-EE, gora

Aurreko igandeko bozetan izandako emaitzen inguruko balorazioa eskatu diegu herrian dauden alderdiei. Hona esandakoak.

Bozkatzeko eskubidea zuten 3754 oriotarretatik 2731 kerantzun zioten deiari honako emaitzarekin: EAJ-EA 1.508, EHAK 541, PSE-EE 250, Aralar 166, EB 129 eta PP 102.

EAJ-EA: 1.508

2001ean izandakoa baino abstentzio maila altuagoak eragin du koalizioaren jaitsiera Mirari Arruabarrena alkatearen ustetan. Hala ere, gustura eta baikor agertu da, EAJ-EAk azken urteetako garaipena errepikatu duelako. Gaineratu duenez, orain, denek eseri eta hitz egin beharko dute ea zein akordiotara allegatu daitezkeen.

EHAK: 541

Ezker Abertzalearen ordezkari Talai plataformako kideen esanetan, emaitzek Anoetako proposamena eta, Orion, herrigintzan egindako lana sostengatu dute. Era berean, politikariek kontuan hartu beharreko ikasgaia izan dela eta bakoitzak bere konpromisoak argitzeko garaia heldu dela adierazi dute.

PSE-EE: 250

%20ko igoerarekin pozik agertu da PSEko zinegotzi Jesus Rodriguez. Garbi omen dago Orioko emaitzak autonomia erkidegoaren erakusle direla, eta, aurreko udal hauteskundeetako argazkia errepikatu dela. Jeltzaleen garaipena zalantzan jarri gabe, botoen %25 galduta, gogoeta sakona egin beharko dutela uste du.

EAJ-EA koalizioa izan zen bozkatuena 1.508 botorekin. KARKARA

"EAJ-EAk, botoen %25 galduta, gogoeta sakona egin beharko du"
—Jesus Rodriguez

PP: 102

Azken Udal Hauteskundeetako PPko zerrendaburu izandako Antton Ibargoienen hitzetan, EAJ-EA koalizioak, lehenengoz, ezkerreko boto igoeraren eragina izan du eta, alde horretatik, nolabaiteko normalizazioa gertatu da kanpainako emaitzetan, bai Orion eta baita autonomia erkidegoan ere. Orain arte besteei bakarrik eragiten zien ezkerraren edo eskuinaren garaipenak, eta EAJ berdin mantentzen zen; gaur arte baina.

LABUR

IKASTAROA

Gazte hizkera hobetze aldera

Gazte hizkerari buruzko ikastaroa antolatu dute Ikastolako DBH3ko gazteentzat. Helburua hizkera informala modu egokian nola erabil daitekeen lantzea izango da eta, horretarako, hiru gai landuko dituzte bereziki: adarra jotzea, ligatzea eta haserretzea, guztiak metodologia partehartzailearekin, jolas eta abarren bidez. Denera zortzi orduko ikastaroa izango da, apirilaren 22, 26 eta 28 egunetan bina orduz ikasleentzat, eta beste egun batean irakasleei zuzendua.

UDALBATZARRA

Plenoko erabakiak

Sotoak etxe bihurtzea ahalbideratzen duen Ordenantzari behin betiko onarpena eman zioten, aho batez, martxoaren 29ko plenoan. Ordenantzak aldaketa batzuk izan ditu bizigarritasun baldintzei dagokienez. Jende gehiagori aukera emateari arren. Bestalde, Arau Subsidiarioetako 10. sektorearen (Palotak) berraztertze txostena hilabeteko epean jendaurrean jartzea onartu zuten. Azkenik, Talai Herri Plataformak euskal presoen inguruan aurkeztutako mozioa atzera bota eta EAJ-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa aho batez onartu zuten.

UDALAK KONTSORTZIOAREKIN HITZ EGIN DU ARAZOARI IRTENBIDEA BILATZEKO

Iturriko ura 14 euro garestiago etxe berrienetan

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak uraren gestioaren ardura hartu eta urtea hastearekin batera aldaketak izan ziren ura ordaintzeko irizpideetan. Orain, lehen fakturekin batera heldu dira lehen kexak ere.

Kontagailuaren arabera, nabarmena da ur kantitate beragatik ordaindu beharrekoaren aldea. KARKARA

Abenduan jakinarazi zuen Udalak, Europar Batasuneko legediari jarraiki, hitzarmena lotua zuela Kontsortzioarekin, urtarriletik aurrera uraren gestioaz arduratu zedin. Ordura arte Udala arduratzen zen den-denaz. Ura hartzeko eskubideagatik kobratutako 9 eurori, 20 metro kubikoko gutxieneko kontsumoaren balioa gehitzen zitzaion eta, hortik aurrerakoa, kantitateen arabera.

DIAMETROAREN ARABERA

Egun, kontsortzioarekin, kuota etxeko kontagailuak duen diametroaren arabera kalkulatzen dute (13mm-koa gehienak eta 20mm-koa berrienak). 13koa dutenek kontsumitutakoari 9,9 euroko kuota gehitu behar diote, eta 20koa dutenek, berriz, 23,79 eurokoa. Hor sortu da arazoa: esaterako, 20m^3 ur gastatuta, aldea nabarmena da batek ordaindu beharreko 19,3 euroen eta besteak ordaindu beharreko 33,1en artean. Eneko Olariaga zinegotziak esan digunez, *Arazoa ikusita, kontagailuaren diametro aldaketa izan liteke irtenbidea, etxe gehienetan 13koarekin nahikoa baita.* Gaineratu duenez, Kontsortzioarekin hitz egiten ari dira, arazoari ahal den konponbide egokiena emateko.

Orain arte jokatutako zortzi partidak irabazi dituzte OBBko neskek. KORO ARRATIBEL

URTEKO GASTUAK ARINTZEKO, BABESLE BILA DABILTZA TALDEKIDEAK

Partida guztiak irabazita, denboraldi hasiera ona

Udaberriarekin batera hasi da sofbol denboraldia eta orain arte jokatutakoak irabazi dituzte Kirolgi-Orioko Bate Bizkorrak taldekoek. Taldea sasoiko dago, eta Eider Murillo juniorraren jokoak atentzioa eman du.

Martxoaren 20an jokatu zuten OBB taldekoek ohorezko ligako lehen partida. Aurreko urteetan bezala, bidaia gastuak gutxitzeko, egun berean bi partida jokatzen dituzte. Orain arteko zortzi partidak irabazi dituzte, eta taldekideak gustura daude erakutsitako mailarekin. Hala ere, diru premia dutela diote.

Bartzelonako Viladecans taldearen aurka hasi zuten denboraldia, eta iazko txapeldunek etsi egin behar izan zuten Orioko nesken aurrean, OBBkoek irabazi baitzituzten bi partidak. Berdin egin dute Orion jokatu dituzten partidetan ere. Duela bi aste Valentziako Antorcha taldea izan zuten aurkari Lezkariko zelaian, eta, pasa den asteburuan, Atletico San Sebastian taldea zuten kontra. Ez kontrarioak eta ez eguraldi txarrak ez zuen gelditu OBBren denboraldi hasiera bikaina.

LEHEN PARTIDAK

Orioko neskez gain, Zaragozakoek eta Cotty eta Brenda argentinarrak osatzen dute taldea. Orain arteko hiru jardunaldietan oso maila polita erakutsi du Eider Murillo gazteak, juniorra den arren, eta denen ahotan izan da.

LABUR

ARETO FUTBOLA

Sailkapenean nagusi

Azken astean bana berdindu zuten Orioko Tabernak taldeko mutilek, baina sailkapenaren lehen postuan jarraitzen dute oraindik. Lau puntuko abantaila dute bigarren sailkatuarekiko eta bost partida gelditzen dira liga amaitzeko.

Arrazoi ekonomikok direla medio igotzen ez badira ere, lehen postuan amaitu nahi dute denboraldia taldeko mutilek.

JUDOA

Nazioarteko txapelketak

Bi txapelketa internazionaletan izan da Oiana Blanco judoka oriotarra azken asteetan. Tunezen jokatu zuen lehena eta hirugarren izan zen bertan eta pena zuen; gero, ordea, lehen postuan izan zen Portugalen. Espainiako selekzioarekin aritu zen Tunezen; Portugalen, aldiz, Euskadiko selekzioarekin.

Orain Unibertsitateko Espainiako Txapelketak jokatuko ditu maiatzean.

ESKOLA KIROLA

Plaieroak

Pasa den astean Zaragueta eta Ikastolako LH6ko nesken arteko finalerdia jokatu zen. Ikastolako haurrak izan ziren garaile eta igandean jokatuko dute finala Marijo Eizagirreren mutilek.

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Lautgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 58 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TXORROKAK · BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR ER Empresa Registrada ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

ARRAUNA

Hiru domina bateletan

Joan den asteburuan jokatu ziren Portugaleten Euskadiko batel txapelketak. Jokoan ziren sei finaletatik bostetan izan ziren Orioko Arraun Elkarteko ontziak lehian eta hirutan lortu zuten urrezko domina: infantil, kadete eta seniorretan hain zuen. Infantil-kadeteko neskek ezin izan zieten zumaiarrei aurrea hartu, eta mutilak, jubeniletan, hirugarren izan ziren.

Datorren astean Santanderren jokatuko dira Espainiako Txapelketak eta Orioko lau ontzik hartuko dute parte.

Infantilak.

HARMAILATIK

Frontenis txapelketa abian

Luze joko du frontenis txapelketak. Oso luze, sanpedrotan izango baitute finala bi bikote onenek. Bi taldetan banatu ditugu hemeretzi bikoteak eta maiatza bukatuko da ligako partida guztiak jokatzerako. Astelehen, asteazken eta ostiraletan jokatzen dira partidak, astero jardunaldi bana.

Bi besterik ez dira jokatu, baina antolatzaileok gustura gaude txapelketa ematen ari denarekin. Ez da arazorik izan eta partida politak ikusteko aukera izan dugu. Halere, frontenisa ez da batere ikusgarria, aspergarria egiten da, askotan. Horregatik, ez da jende asko joaten pilotalekura.

Izan ere, tantoek luze jotzen dute eta partida askok ordubete eta gehiago irauten dute, hogeita hamar tantotara jokatzen badira ere. Batzuk erraz jotzen dute jokoa nahastera, baina esperientzia handiena dutenek oso gutxi arriskatzen dute eta aurkariari pilota baztertu eta huts noiz egingo zain egoten dira. Hori da frontenisean irabazteko behar dena, tantoa egiteko ez baitago zartako handien beharrik; eustea nahikoa izaten da gehienetan.

ASIER ZABALETA

TXAPELKETAREN ANTOLATZAILEA

Askok erraz jotzen dute jokoa nahastera, baina esperientzia handiena dutenek oso gutxi arriskatzen dute

Hala ere, tartean tanto politak ere ikusten dira, eta askotan arriskatzen duenak partida galtzeko arriskua duen arren, tantoa amaitzeko aparteko abilezia duten jokalariak ere badira txapelketan.

Askok frontenisa jokatzeko ere aspergarria dela diote eta gomazko pilotarekin palan ibiltzen direnek ez dute gogoko raketa hartzea. Baina gure generazioko gazteak ez gara palan ia batere aritu eta nahiago dugu frontenisean jardun. Arrotza eta zaila egiten zaigu palan ibiltzea. Ikusteko aspergarria dela esatea onartzen dut, baina jokatzeko eta izerdi pixka bat botatzeko ondo dago kirol berria.

Txapelketara bueltatuz, goiz da oraindik pronostikoak egiten hasteko, baina bikote indartsuenek ez dute hutsik egin. Lehen taldean Lertxundik eta Martikorenak bakarrik irabazi dituzte bi partidak. Bikote indartsua da, baina beste hiru edo lau bikote sasoiko ere badaude talde honetan eta edozer gauza gerta liteke oraindik. Bigarren taldean lehia handiagoa da, lau bikotek jokatutako bi partidak irabazi dituztelako. Zaila dago pronostikoa. Ez naiz ausartzen irabazlearen izenik ematera, ez nuke-eta asmatuko.

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA
Hileta eta zerbitzu orokorrak
* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiroko zerbitzua
* Belatorio gelak
* Korziak, eskelak, tramitazioak...
Araba kalea, 35 Zarautz
Tel. 943 89 49 37 / Faxa: 943 89 49 41
e-mail: hamespil@hamespil.net

AMILIBIA ONTZIOLAK, S. L.
kirol portuetan proiektu eta instalazioak
gozi motako lehiaketarako arraun-ontziak
Olaskoagagia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

hortz-klinika
BPS 192/02
MOZES-HIRIART eta SOULIER
•odontologia orokorra
•periodontzia (ortzurgintzak gabe)
•endodontzia
•inplantologia
•ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
•protesiak
•hortz-estetika
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea ZARAUTZ 943 13 02 78

JASONE IRIGOIEN | ARTISTA

"Nire lanetan emozioa da nagusi: sentitzen dudana"

Apirilaren 14tik maiatzaren 13a bitartean ikusgai dago Jasone Irigoienen erakusketa Eibarren. Arte Ederrak ikasia da 27 urteko aiarra, eta, doktoretza tesia egitearekin batera, goizetan Debako Arte eskolan ikasten du.

Zer moduz Eibarko erakusketa?

Oso ondo. Okerrena enpresa baten ordutegia daukala. Astelehenetik ostegunera 8:00etatik 18:30ak arte dago zabalik eta ostiraletan 17:30ak arte. Asteburu eta jai egunetan, berriz, itxita dago. Gainera, oso aparte dago herritik, toki industrial batean, jendea pasarakoa izaten da. Pentsatzen dut bisitari gutxi joango dela: enpresaren batean zerbait egin behar dutenak, bertako jatetxera joaten direnak, lagunak, gelakideak eta familiakoak izango dira gehienak. Hala ere, garrantzitsuena da curriculumean agertuko dela hainbat erakusketa egiten ari naizela, saiatzen ari naizela behintzat... Etxeko tailerrean lanak edukitzea gauza bat da, baina lan horiek jende aurrera ateratzea kosta egiten da. Azken batean nor bere sentimentuak dira adierazten direnak eta horiek kosta egiten da jende aurrean jartzea.

Jendearen erantzuna nolakoa izan da?

Oso ona. Gelako bazkaria egin genuen inaugurazio egunean eta giro ederra sortu zen. Erakusketa gelaren estruktura kontuan hartuta egin dut; egitura zirkularra dauka. Argazki edo koadroak jartzeko ez da oso egokia, baina polita iruditu zitzaidan zerbait berezia egiteko. Lanak *Metamorfosia* du izena eta armiarma sarea egin nuen postetik postera eta erdian zintzilika pertsona, ni izango nintzatekeena, argizariarekin bilduta, eta inaugurazioko garaian su eman nion. Gero olerkiak errezitatu genituen bertaratutakoen artean, olerkiek ondo adierazten zuten lanean adierazi nahi izan dudana. Honela zioen estrofa batek: "ni zu, zergatik ez zu, emaiozu su, emaidazu su". Honela lanari begira dagoenari zuzentzen naiz. Ni eta zu. Hor esan nahi nuen denok dauzkagun mugak gainditzeko. Denok dauzkagu mugak, nik bai eta agian zuk ere bai; begiratu. Interakzio hori lortu nahi nuen. Eta "ni zu" horrekin, metamorfosia: dualitatearen baitan, norberak bere barnean dauzkan bi alde horiek adierazi nahi izan ditut. Batetik gizarteak izateko eskatzen diguna, edota gure buruari eskatzen dioguna; eta beste aldetik gure alde basatiak agintzen diguna adierazi nahi izan ditut. Erakusketaren ardatza hori da, aldaketa egiteko duzun borroka horretaz kontziente izatea.

Jasone Irigoienen 'Metamorfosia' Eibarren dago ikusgai JASONE IRIGOIEN

Zuhaitzak oihalekin inguratu eta tximeleten metamorfosiko formak girotu nituen

Aian uda honetan izango naiz, agian. Gogor samarra ere bada nor bere herrian lanak erakustea...

Zerk inspiratzen zaitu lanak egiteko garaian?

Nire lanetan dena emozioa da, sentitzen dudana. Hasieran sentimentu desberdinetatik sortzen dira lanak eta gero horiei gorputza ematen joaten naiz.

Leku kuttunen bat lanak egiteko?

Kasu honetan, gure etxeko basoko zati bat hartu nuen. Zuhaitzekin, naturan, ama lurrarekin kontaktuan... amaren bila. Zuhaitzak oihalekin inguratu eta tximeletetan metamorfosia ematen denean sortzen diren forma horiek girotu nahi izan nituen. Bestela, edozein lekutan etortzen zaizkit ideiak.

Herrian noizko zure lanak?

Uda honetan, agian. Gogor samarra ere bada norbere herrian lanak erakustea, baina badaukat gogoa.

Artista jaio egiten da bat?

Jaio asko egiten dira artistak. Baina gure buruari uzten al diogu artista izaten? edo inguruak uzten al digu artista izaten? Asko berandu konturatzen dira artista direla eta dirua izateak ere asko esan nahi du, honek ez du-eta dirurik ematen. Oso gutxi daude aberastuak, Txillida eta Oteiza hil eta gero. Ez da erraza.

MUTILAK PILOTAN, NESKAK FUTBOLEAN

Aiako mutilak eskolarteko pilotari txapeldunak dira

Apirilaren 9an Zarautzen jokatu zuten Aiako pilotariek eskolarteko txapelketako finala Zarautzeko La Sallekoen aurka. Bertan, aiarrak izan ziren nagusi eta herrira ekarri zituzten irabazlearen txapelak eta kopak.



Eskola arteko txapelketako irabazleak: Kepa, Gorka eta Igor KARKARA

Kepa Eizagirre, Gorka Olasagasti eta Igor Lertxundi eskola arteko pilota txapelketako irabazleak izan ziren pasa den apirilaren 9an Zarauzko La Sallekoen aurka jokatu zuten finala irabazi ostean. Txapelketa bikaina egin dute 3 mutilek eta, azkenean, merezitakoa lortu dute.

Egun berean, apirilaren 9an, arratsaldez, Gipuzkoako partida jokatu zuten Kepa, Gorka eta Igorrek Azpeitian hango pilotarien aurka eta orduan ezin izan zuten garaile izan. Goizean jokatu zituzten partidek izango zuten seguruenik zer ikusia, nekatuta ere egongo baitziren hirurak. Gauzak horrela, ezin izango dute aurrera jarraitu Gipuzkoako eskola arteko txapelketan.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Gipuzkoako herrien arteko pilota txapelketa hastear da eta Aiak parte hartzeko asmoa du aurten ere.

Txapelketa maiatzaren 1ean hasiko da eta bukatu, ekainaren 26an, Donostiako Atano III pilotalekuan jokatuko den finalarekin.

Kepa Eizagirre, Gorka Olasagasti eta Igor Lertxundi dira eskola arteko pilota txapelketako irabazleak

Horren harira, herriko taldeak zarauztarrak izango ditu aurkari kanporaketako lehen partidan. Joanekoa Zarautzen jokatuko dute maiatzeko lehen asteburuan, eta bueltakoa, berriz, Aian bertan, astebete beranduago.

FUTBOLA

Lardizabal eskolako nesken taldeak Zarauzko hondartzako futbol txapelketako final aurreko partida jokatu zuen apirilaren 10ean. Ezin izan zuten irabazi, baina benetan azpimarratzekoa da aurtengo honetan neskek egin duten txapelketa bikaina.

LABUR

HEZKUNTZA

Haurreskolako matrikula epea zabaltzear da

Aiako Kimu haurreskolako matrikula epea maiatzaren 3 eta 18 bitartean egongo da zabalik. Argibide gehiago nahi izanez gero, 943 13 46 65 telefonora deitu behar da edo haurreskolara bertara joan goizeko 10:00etatik 11:00k bitartean.

IKASTAROAK

Interneteko ikastaroak Kultur Etxean

KZgunean internet ikastaroak izango dira apirilaren 18tik 29ra, 16:00etatik 18:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro hauetan interesatuta dagoenak egin dezala galdera Kultur Etxean.

HAUTESKUNDEAK

Igande euritsua botoa emateko

Apirilaren 17ko Euskal Autonomi Erkidegoko hauteskundeetan Aiako emaitzak honakoak izan ziren:

EAJ-EA alderdien koalizioak 694 boto lortu zituzten, EHAK alderdiak 196, Aralarrek 35, EBk 19 boto PPk 14 eta PSE-EEk 13.

Abstentzioa %29,7koa izan zen, aurreko autonomikoetan baino gehiago.

AIAKO LEIHOA

Argentinar bat euskaldunen artean

Hona bizpahiru alditan etortzeko zortea izan dut eta, itzuli naizen bakoitzean, pixka bat nireago sentitzen dut lurraldea. Egia da, beste 'familia' ere badut hemen, oso pozik eta gustura sentiarazten nauena, eta beti izaten naiz itzultzeko irrikitan.

Ezberdintasun asko dago gure artean. Hemen jendea oso atsegina da, ekintza gehienak mahai inguruan egiten ditu eta horrek atentzioa ematen dit. Gainera, orain ikasi dut bizkarreko bat ematen dizutenean edo 'oraindik hemen al zara?' esaten dutenean, horiek maitasunezko frogak direla.

Hemen edozein aitzakia (futbol partida, adibidez) aprobetxatzen da familia eta lagunekin elkartzeko, eta hori oso garratzitsua da harremanak sendotzeko. Urrutirago joan gabe, Txakolin Egunean Aian izan nintzen, zoragarri pasa nuen: lagunez inguratuta, nire ahizpa kostilla hezur handia jaten ikusita; hori bai, edariak ondorioak ere baditu...

Hemen jendeak Buenos Airesen baino denbora libre gehiago du gozatzeko; han distantziak, bizitzeko erritmoak... direlako, opor edo jai egun gutxiago izaten ditugu; horregatik, askoz gehiago apreziatzen ditut une horiek.

Hori bai, etorri naizen bakoitzean lortu ez dudana tabernetan paperak lurrera botatzea izan da; esan izan didate paper gehien dauden tabernetako pintxoak direla onenak, baina niri arraroa egiten zait hori. Asko harritu nau, baita ere, edateko duzuen ohiturak eta dagoen taberna piloak: zorionez, beste hainbeste taberna geratzen zaizkit ezagutzeko.

Guk gazta bazkalaurretik jateak, zuek baino askoz hozkilagoak izateak edo agure esatearekin batera beti muxu bat emateak nahiz eta geroxeago berriro ikusiko garela jakin, ezberdintzen gaituzten gauzak dira. Gainera, sarritan gai batez hitz egin eta konturatzen gara ez dugula gauza bera ulertu; baina, era berean, elkarrengandik gertuago egon gaitezke hitz eginez.

Nire beste familia eta lagunek, ohitura horiekin, egiten dute bidaia bakoitza maitasunez eta laguntasunez beteta egotea. Horregatik guztiagatik eta beste gauza askorengatik, eskerrik asko.

MARIELA OTERO

Hemen beste 'familia' ere badut, pozik eta gustura sentiarazten nauena; beti izaten naiz itzultzeko irrikitan

Etorri naizen bakoitzean lortu ez dudana tabernetan paperak lurrera botatzea izan da; arraroa egiten zait

TXOKOAK ETA JENDEA

Edurne Pasaban gure artean

Edurne Pasaban mendizale ezaguna gure artean izan genuen apirilaren 7an, orain artean egin dituen zortzi mila metroko sei igoeren bilduma aurkezten.
Behin aurkezpenak amaituta, berarekin solasean jarduteko aukera izan zuten Kultur Etxera gerturatu ziren 50 lagun inguruk.
Entzuleen artean ume asko ikus zitekeen, hizlariaren azalpenak adi-adi entzuten.
Behin hitzaldia amaituta, argazkia ere atera zuten txiklenek, mendizale tolosarra lagun zutela, irribarretsu eta pozik.

Jose Manuel Ibar Urtain sarri etortzen zen Aldek Orion zeukan harritegira. Era eta pisu askotako harriak ditu Luisek harritegian. KARKARA

Luis Atxega *Alde*: harri-jasotzailerik onena

JON AGIRRESAROBE
ETA IÑAKI ITURAIN

Gutxik jakingo dute Alde baserrian jaio zela 1940-1950 hamarraldiko harrijasotzaile handiena. Apustu mordoa jokatu zuen Luis Atxegak urte gutxian. Berak esandakoekin eta garaiko egunkarien kronikekin osatu dugu erreportajea.

Luis Atxega Orbegozo *Alde* Aiako Santio auzoan dagoen Arrazubi-Alde baserrian jaio zen 1926ko otsailaren 12an. Baserriak berak eman dio izengoitia garaiko harri-jasotzaile onena izan zenari. Gerora, Atxega abizena ezagun egin da, baina *Alde* izenez ezagutzen zuten kirolariek eta apustuzaleek.

Herri kirolerako zaletasun handia zegoen Aian eta Orion. 16-17 urterekin hasi zen Luis harria jasotzen. Baina aitak ez omen zuen begi onez ikusten eta isilka aritu behar izaten zuen, hasiera haietan: goizeko laurak aldera jaiki eta Andatza aldera joaten zen Luis korrika, eta aita esnatzerako, ohean sartzen omen zen entrenamendu saioa eginda.

1946ko azaroaren 14an plazaratu zen lehen aldiz. Zarauzko Zinema pilotalekuan elkarren aurka aritu ziren 13 harri-jasotzaile gazte. Luisek 60 altxaldi egin zizkion 100 kiloko zilindroari. Bi aurkarik berdindu zuten, ordea, aiarrak egindako marka. Dirua hiruren artean banatu zuten; trofeoa, berriz, Luisi tokatu zitzaion zozketa bidez.

LEHEN APUSTUAK

Harri zilindrikoarekin moldatzen zen ondoen Luis, eta

berehala hasi zen apustuen saltsan. Gehienak irabazi egin zituen, gainera.

Debako Soarteren aurka jokatutakoak dira desafio lehiatuenak eta ezagunenak. Lehena 1949ko abenduaren 26an jokatu zuten, Tolosako zezen plazan. 100 kiloko zilindroarekin hamar minutuko hiruna txanda eginda gero, sei altxaldiko aldearekin irabazi zuen Luisek.

Bi urte beranduago, uztailaren 21ean jokatu zuten berriz apustua. Orduan, aldiz, 125 kiloko zilindroarekin aritu ziren. Atxegak galdu zuen apustua, bi altxaldi gehiago egin baitzituen Soartek. Atxega 79 kiloren bueltan ibiltzen zen, eta Soarte, aldiz, 100 kiloko gizona zen.

Aiako Odoltsuren aurka jokatutako biak ere gogoan izango dituzte zaleek. Bi apustuak Luisek irabazi zituen. Duten gertutasunarengatik, interesgarriak dira Portuko Indo anaiei botatako erronka eta Amilibiarekin izandako eztabaida. Izan ere, urtetan zaharragoa zen hura, eta urteen diferentzia altxaldietan ematea eskatu zion Amilibiak. Luisek egunkariko erredakziora joan eta Amilibiak jarritako iragarkiari ezetz erantzun zion.

Harri handiekin bikain moldatzen zen Luis. Behin bi jasoaldi eman zizkion 188 kilokoari 1,45 minutuan eta beste behin, bost ja

ALDEA EMANDA

Aldea emanda aritzen zen, askotan. Irazustak hamazazpi altxaldiren aldearekin ekin zion Luisen kontrako lehen apustuari, baina bigarren txandan etsi egin zuen. Bigarrenean, 100 kilokoarekin jardun zen Irazusta; Luis, aldiz, arroa bat gehiagokoarekin. Luisek hiru altxaldirengatik galdu zuen apustua.

Aurreko apustua erraz irabazi ziolako, Usategiri 33 altxaldiko abantaila eman zion behin. Bakoitzak 40.000 pezeta jokatu zituzten 100 kiloko zilindroari nork altxaldi gehiago eman. Usategik 197 eman zizkion; Luisek, aldiz, 230. Berdinduta geldi tu ziren.

Harri txikiarekin maisu zen Luis, baina astunagoekin ere egin zuen saioren bat edo beste. Orion, Espainiako txapeldun izan ziren arraunlarien omenaldian egindakoa, esaterako: *australianoa* deitzen zioten Basurkok berotu zuen Luis, esanaz ez zela gai izango Errekartetxo azpeitiarrak zuen errekorra hausteko. 5.000 pezeta eta trofeoa jaso zituen Luisek, bost minututan bost aldiz eraman baitzuen sorbaldara 200 kiloko harria. Hauxe izan zen Luisen erantzuna, erronka bota zioteneau: *ez diat asko entrenatu beharrik marka hori hausteko.*

"Albizuri haundi" harria

Harri bat ezaguna baldin bada, Amezketakoa da. 170 kilo ditu, arrautza itxurako luzexka da eta ez du heldulekurik. Harri-jasotzaile onenak saiatu ziren , baina ez zuen inork helburua lortu Urtain zenaren altak eta Errekartetxok jaso zuten arte.

1951ko azaroaren 4an, ordea, inguruko harri-jasotzaile onenak joan ziren Amezketara harria jasotzeko asmotan. Bi oriotarrek bakarrik lortu zuten helburua: hamar minutuko txandan, Inazio Olidenek zazpi jasoaldi eman zizkion; Luis Atxegak, aldiz, hamaika. Garai hartako prentsak, horrela deskribatzen zuen gertatutakoa: *harri-jasotzaile onenak ere etsi egin dute Albizuri-Aundi harriaren aurrean, baina bi oriotarrek kartoizko jostailua bezala darabilte harritzarra.*

IÑAKI ITURAIN | IRAKASLEA

200 kilokoari herriko plazan. KARKARA

Debako Soarte handiaren kontra jokatu zituen Luisek bi apustu ezagunenak. Lehena irabazi egin zuen, gainera.

100 kiloko kubikoari 54 altxaldi eman zizkion hiru minututan, eta 230 altxaldi ordu erdian.

Maisurik gabe aritu zen harria jasotzen, baina maisu handia izan zen Luis. Eskola jarri zuen gero ardotegian.

LUISEN BERTUTEAK

Basarri bertsolariak, esatari eta kazetari lanetan ibiltzen zenak, zera goraipatzen zuen Atxegaren lana ikusita: *giltzurdinekin egindako indarra da Atxegaren sekretua, gerri eta hankekin egindako indarra bikain aprobetxatzen du eta petxuan izaten du harria konturatzerako.* Esforzu txiki bat nahikoa izaten du gero harria sorbaldara igotzeko. Bada beste gauza bat Basarri zenak garai hartako harrijasotzaileei kritikatzen ziena: apustuetan bakarrik erakusten zuten zer egiteko gai ziren, eta kirolari handiak marka handirik jarri gabe erretiratzen ziren. Luisek, erretiratu aurretik, ondoko errekor hauek jarri zituen hainbat erakustalditan: 100 kiloko zilindroari 54 altxaldi eman zizkion hiru minutuan, 230 altxaldi ordu erdian; eta azkenik, 150 kiloko zilindroari 83 altxaldi eman zizkion Orioko plazan, ordu erdian.

Harriarekin hasi zen Luis kirolean, eta kirol horretan egin zen ezagun. 1953an utzi zion harria jasotzeari, 25 urterekin. Ezkondu eta ardo negozioa ireki zuen. Baina ez zuen apustuen mundua erabat utzi.

GUTUNA VENEZUELATIK

Atzerrira joateko aukera ere izan zuen Luisek, azkenean joan gabe gelditu zen arren. 1952an Venezuelatik gutun bat jaso zuen, eta erakustaldiren bat egitera joateko gonbitea eginez. Hala zioen gutunak pasarte batean: *yo estoy enterado por medio de periódicos todas tus azañas asta lo de amexqueta, se ve claro que no tienes contrario y eres campeón del mundo. No hay nadie que pueda contigo, ni Soarte y ni Cristo. Ese lo que le gusta es echar erroncas y nada mas. Dile que tu no tienes miedo yo te pondre dinero por eso no te eches atras que tu puedes con todos esos fanfarrones.*

Gerora, gazteei erakusten ibili da. Eskolak ematen hasi zen Ardo negozioaren ondoan. Euskal Herriko lehen eskola izan zen. Perurena eta Goenatxo anaiak bertan aritu ziren garai batean. Goizean korrika egin eta gimnasioan jartzen zituen mutilak, arratsaldean harria jaso eta korrika egitera bidaltzen zituen ostera. Bere garaian maisurik gabe aritu zen, baina maisu handia izan da bera.

Gainontzeko herri kirolak ere gertutik jarraitu zituen. Oriotarren eta aiarren arteko gizon proban aiarren prestatzaile izan zen Luis. Juan Jose Itxasperi ere Luisek bota zion erronka ez zuela 50 kiloko zakua bizkarrean Anduraino eramango gelditu gabe.

ADARRETATIK HELDUTA

K.S.K.E. Xurrumurru

Hala dio Euskal Herriko kanta ezagun eta herrikoi batek: "Gazte gara gazte eta ez gaude konforme". Badakigu gaur egun ere zein zaila den gazteentzat bide berriari ekin eta aurrerantz jarraitzea. Orion ere bada gazte koadrila bat, nahiz eta bakarra ez izan, bere bidea aurrerantz egiten ari dena, eta nola, gainera. Bai, arrazoi duzue, Xurrumurrukoez ari naiz, jakina, herriko festak hasi baino lehen, mozkorrerako gurdi eta guzti, elkartzen den lagun talde horretaz. Baina ez da edaria bakarrik gazte horiek batzen dituena. Guztiaren atzetik urte osoko lana egon ohi da, eta egia esan, ez da erraza egiten dutena egitea.

Xurrumurru Kultur Elkartea 1992an sortu zen. Gaur egun, garai hartan sortzaile izan zirenetako inork ez du jarraitzen, baina bilatu zuten nori eman errelebua. Baita ederki asmatu ere. Oraindik martxan jarraitzen du elkarteak eta ez du ematen berehalakoan uzteko gogorik dutenik. Ea indarrak laguntzen dien. Gaur egun, hala ere, 16tik 26ra urte bitarteko 10 laguneko koadrila honek taldearen estatutuak aldatu nahi ditu eta, bide batez, Kultur Solasaldi eta Kirol Elkarte bihurtu. Batez ere azken bi bide horiek baitira landu ohi dituztenak, kirol apur bat eta solasaldia ahalik eta gehien.

Eskubaloia da horien gogoko kirola. 2000. urtean Senior mailako talde federatua atera zuten, Talai Mendi Elkartekoen laguntzaz, eta iaz infantil mailako mutilekin beste bat ateratzea lortu zuten. Baina gauza gehiago ere antolatzen dituzte; hala nola, Olentzeroko Eskubaloi txapelketa eta Frontenis txapelketa, festetako egitarauan laguntzen dute. Eskola eta Ikastolako eskubaloi taldeak entrenatzen dituzte eta udara begira Alacantera joateko bidaia antolatzen ari dira. Bidaia horretan Orioko infantiletako neskak eta alebinetako mutilak joatekoak dira aurten. Bestalde, alebinetako nesken gurasoak ere animatuko nituzke alabak bidaltzera, oso esperientzia onak izan dira-eta orain artekoak. Ea aurtengoa ere hala den!

JON AMENABAR
IKASLEA

10 laguneko koadrila honek estatutuak aldatu nahi ditu eta Kultur Solasaldi eta Kirol Elkarte bihurtu

Alacantera bidaia antolatzen ari dira eta infantilelako neskak eta alebinetako mutilak joatekoak dira

Diru laguntzarik ez diote eskatu Udalari 1997az geroztik. Diru guztia beren ekintzetatik lortzen dute, nahiz eta horretarako Udalaren laguntza eduki. Diru sarrerak festetako txosnaren bidez eta frontoiko taberna ustiatuta lortzen dituzte. Baita txiskeroak eta errifak salduta ere. Aurten ez dute frontoiko taberna irekitzerik izan, pertsiana hautsita baitu. Ea Udalak konpontzerik baduen. Lortutako diruarekin kanporako irteerak merketu eta ekipamendua erosi ohi zaie gazteei.

Besterik gabe, nire animorik beroena Xurrumurrutarrei, eta herritarrei esan sanpedrotako txosnan kontsumi dezatela, herriko gazteen jarduerak bultzatzeko da eta. Atera tragoa zuen alde!

NIRE HONETAN

Milakiloen herentzia

Garai zailak bizi ditu arrantzak, egungo egoera marinelen urrezko urteekin alderatzen badugu behintzat. Zuloak ditu itsasoko ofizioak alde batetik eta bestetik: ez dago lehen adina arrain, *kaladero* berriak beste norbaitek ustiatzen ditu, prezio merkea du arrainak bentan, inbertsio handiak egin behar dira ontzia behar bezala izateko...Baina nola egiten die aurre arrantzaleak arazoei?

Kofradiak defendatzen ditu arrantzaleen interesak. Bi frentetan egiten du lana patroien eta arrantzaleen ordezkaritzak: arrantzaleen beharrak eta premiak gizartean zabaltzen saiatzen da, batetik, eta arrantzaleen artean ordena ezartzen ere saiatu beharko luke, bestetik. Baina ez dakit zenbateraino saiatzen den azken honetan; eraginkortasun handirik ez du, behintzat. Izan ere, ofizioa lehiakortasunez hartu behar da beti, baina beste sektoreetan neurri protekzionistak jarri izan diren moduan, *milakiloen* zerrendak hautsi du itsasoaren herentzia. Kofradiak bandera jarri arren, ezkutuka saldutako antxoak hartuko lituzkete oraingoek, baita saldu ezinik eta bazdaezpada ere arrantzatutakoak ere. Norberaren lana zaindu kexatzen hasi aurretik!

JON AGIRRESAROBE
IKASLEA

Zer iruditu zaizkizu hauteskundeetako emaitzak?



Jon Fernandez
54 urte

Sorpresa piska bat hartu dut EHAKren gorakadarekin; baina, gainontzean, erabat normala iruditu zait azken emaitza. Kanpaina, berriz, betiko moduan joan da. Egoera aldatzeko itxaropena badut, eta espero dut politikariek elkarren artean hitz egin eta arazoak konponbidean jartzeko zerbait egingo dutela.

"Espero dut arazoak konponbidean jartzeko zerbait egingo dutela"

Itziar Pikabea
24 urte

Ez naute batere harritu igandeko emaitzek, espero nuen horrelako zerbait. Ez dut kanpaina askorik jarraitu baina ez dut uste ezer aldatuko denik, orain artean aldatu zitekeena berdin mantendu bada. Kargudun berriek nahi dutena egingo dute, baina, behintzat, elkarren artean errespetu gehiagoz hitz egin dezatela.

"Kargudun berriek, nahi dutena egin arren, elkarren artean errespetuz hitz egin dezatela"

Xanti Garmendia
51 urte

Emaitzek agintzen dute eta ateratakoarekin konformatu beharko gara. Kanpaina, berriz, astuna izan da, beti izaten diren moduan. Badago egoera aldatuko den esperantza, baina nik txikia daukat oso. Politikariei elkarren arteko errespetu gehixeago eskatuko nieke, eta, behingoagatik, ondraduak izateko.

"Badago egoera aldatuko den esperantza, baina nik txikia daukat oso"

Pilar Zaldua
60 urte

Gutxi edo gehiago espero zitekeela uste dut, bai alderdi berriaren igoera eta baita EAJren jaitsiera ere. Politikariei elkarri gaizki esaka ibiltzeari utzi, eta, beste edozeren aurretik, bakea lortzea eskatzen diet nik, denentzako lekua badago eta. Jarrera aldatzea ere eskatzen diet, jendea nekatuta dago eta.

"Beste edozeren aurretik bakea lortzea eskatzen diet, denentzako lekua badago eta"

KRITIKA

Maite Franco liburutegian aritu zen apirilaren 15ean 30 haurren aurrean. KARKARA

Hans Christianen ipuinak Maite Francoren ahoan

Kostaldeko herritxo bateko Kultur Etxean, bazen gela berezi bat. Ipuin-liburu mordoa bizi zen bertan, eta umeak zituzten gustuko, orriak pasatzean kilimak egiten zizkietelako. Hilabetean behin, istorio horietako batzuk liburuetatik askatu, eta hiru ordu laurdenez ipuin kontalari baten ahotan jartzen zituzten; liburuengandik jasotako ipuinak ongi ikasi, eta entzulea ipuinaren parte egiten dituzten artisten ahotan.

Behin, Maite Franco deiturikoa joan zen bisitan, apirilaren 15 batean. Harekin zihoazen Hans Christian Andersenen pertsonaia nagusiak, hau da, Ahate Itsusia, Sirenatxoa eta ikuilutik mundua ezagutzera atera zen Kakalardoa. Horiek bai, horiek ezagunak dituzue, noski. Bai zuek eta baita Kultur Etxeko gela berezi hartan bildu ziren 30 umeek, guztiek batera Hansen istorioak bizi-bizi ipini baitzituzten: une batez zaldi ederrak Jon izena hartu zuen, tximeleta bihurtzeko zegoen beldarrak Ane, eta printzeak aukeraturiko printzesak Olatz.

Bukatu zenean, umeak, Maite eta Hansen lagunak etxera pozik itzuli ziren primeran pasa zutelako. Eta liburuak zoriontsu geratu ziren apaletan, haien istorioek irribarreak, kantuak eta une atseginak sortzeko balio dutela ikusita.

Hala bazan eta ez bazan... Kultur Etxeko liburuei galdetu. Apirilaren 23an haien egun handia da, eta aitzakia ederra duzue bisitan joateko; haiek beti bezain eder, jakintsu eta entretenigarri daude zuen zain.

ARANTXA TXINTXURRETA

IKASLEAK IDAZLE

EVA AIERZA | DBH 4. MAILA

Itxuraren garrantzia

Pentsatu al duzu zergatik duen horrenbesteko eragina itxurak gugan? Egia da, norbait ezagutzean, lehenengo erreferentzia janzteko modua, orrazkera... dela, baina horren guztiaren barnean izaera bat ezkutatzen da, bakoitza berezi egiten gaituena. Hala ere, itxurari kasu gehiago egiten diogu. Bestela nola esplikatu horri lotuta dauden arazoak? Seguruenik, zuei ez dizuela eragiten pentsatzen duzue, baina, nork ez du sekula norbait baztertu bere ingurukoek hala egiten dutelako? Ez zaizkiolako gustatzen azken modako galtzak? Edo etxean ezin dizkiotelako 'Rip Curl' zapatak erosi? Gure konplexuekin lotsatuta, aldamenekoarenak azaleratuz gureak tapatzen saiatzen gara, eta soluzioa nor bere buruarekin konforme izatea da.

KAIUA
TABERNA
Anibarko Portua, 35
Tel. 943 83 40 54
20810 ORIO

HANDIK ETA HEMENDIK

"Julen Lekuonak, *Eliza pobrea, denontzat hobea* kantatzen zuen. Denontzat. Justu kontrakoa ikusten ari gara. Oximoron erraldoi bat."

ANJEL LERTXUNDI
Idazlea
Berria
2005/04/20

"Ez da hauteskundeetara komunistekin goazen lehenengo aldia. Gu sozialistak gara, baina Ezker Abertzaleak beti ezagutu du sentsibilitate komunista, eta oraingoan zati bati tokatu zaio aurkeztea osotasuna balitz bezala."

ANTXON GOMEZ
EAE-ANVko idazkaria
Urola Kostako Hitza
2005/04/13

OSPAKIZUNA



Maialen Etxeberria

Maialen Etxeberria Dominguez duzue amaren besoetan azaltzen den neska txikia. Martxoaren 24an jaio zen Rakel Dominguez eta Rikardo Etxeberriaren alaba, 21:00etan hain zuzen, eta, hasiera batean aurreikusitakoa baino lau egun lehenago. Gauetan bihurri xamar dabilela esan digu amak, baina Benito Lertxundiren musikarekin segituan lasaitzen omen da; belarri ona du, beraz, txikiak! Aitona-amonak, berriz, pozez txoratzen omen dabiltza berarekin, lehenengo iloba dute-eta.

ZORIONAK!

DET taldeari

Ikastolako DBHko ikasleek sortu dute DET taldea, orain dela gutxi aldizkarian adierazi genizuenez, eta, geroztik, ari dira pixkanaka bidea egiten. Irakasleen laguntzaz, gazte hizkera landuko dute datozen egunotan eta, horretaz gain, euskararen erabilera neurtzen hasita daude ikastola ondoko plazan, irudipena baitute guraso euskaldun askok haurrekin bakarrik egiten duela euskaraz, beren artean gaztelaniaz jo eta fuego ari diren bitartean. Etengabeko haize freskoa behar du gure hizkuntza zaharrak eta bide horretan aurrera egitera animatu nahi ditugu.

etxeko lanak egiteko norbait behar da
telf:943 83 57 17

Goizeko KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Lertxundi, 33 behea - ORIO
Autobus parada ondoan

AUTOAK AUKERA ONEAN
AIA ORIO
Telefonoa: 943 13 04 38

BORDATXO
• Bokadiloak
• Marisko razio bereziak
Tel.:943 13 30 14

FISIOTERAPIA Garikoitz Aristegi eta Natalia Wieteszen
NUTRIZIONISTA Garbiñe Aizpuru
sinergia investigacion fisioterapia
ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Itzala Taberna
Kartetan jokatzeko apropos
Tel. 943 83 12 59

SOLOZABAL autoeskola
Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

OROIMENAREN KUTXA

Oraindik ere fabrika eta eskolaren aztarnak geratzen dira Saikolan. KARKARA

Saikola, auzo ahaztua

Saikola, Sariako ola, Oriok Aginagarekin duen muga, Orioko parajerik ederrenetako batean dagoen auzo galdua, historia aberats baten jabea.

Gaur egun bi lagun besterik ez dira bizi Saikolan. Horren aspaldi ez dela, ordea, hantxe zegoen Orioko industriarik handiena. Alpargata eta zakutarako lehengaia egiten zuen fabrikak 62 langile izan zituen bere arorik onenean; eta auzoan 16 familia bizi ziren. Eskola ere bertan zeukaten. Fabrikarako argindarra sortzen zuen olak hirurehun urtetik gorako historia du. Fabrikak aspaldi izan zuen bukaera; 1956an lur jauzi batek azpian harrapatu zuen. Zorionez, gauez gertatu zen eta ez zen hildakorik izan, baina fabrika txikituegin zuen. Orduan hasi zen Saikolaren gainbehera. Pixkana, hango langileak alde egiten hasi ziren, eta auzoa hustu egin zen ia.

Fabrikarenak eta eskolarenak aztarnak gelditzen dira. Ola eta etxeak zutik daude oraindik, baina itxura tamalgarrian, erortzen hasita. Orduko aro bizi eta indartsu hartatik oroitzapenak bakarrik geratzen dira. Asko eta ederrak. Txoko txiki honetara bakarra ekarriko dut: 1985 inguruan pelikula bat egin nahi izan zuten Saikolan. Istorioa Txilen kokatua zen eta Angela Molina eta Anthony Quin ziren pelikulako aktore izatekoak. Los viajeros de las cuatro estaciones izango zen pelikularen izena. Lan asko egin zuten Saikola egokitzen. Extra lanerako aktoreak aukeratzeko saioa ere egin zuten Orion. Pelikula, azkenean, bertan behera gelditu zen, diru faltan.

Lehen errealitatean bezala, fikziozko Saikolak ere porrot egin zuen. Geroztik Saikola lo datza, zain, norbaitek noiz esnatuko. Saikolak antza du Benitok kantatu zuen Orbaizetako armafabrikarena. Baina Lertxundiren beste kantu bateko hitzak dakarzkit gogora Saikolak, Baldorbarenak: esazu nor zen bidetik baztertu zintuen madarikatua!

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Irati Irastorza Arriola, Orion, apirilaren 3an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik izan.

HILDAKOAK

- Jose Lertxundi Ibargoien, Orion, apirilaren 13an. 83 urte.
- Iñaki Lasa Alestaran, Orion, apirilaren 14an. 82 urte.
- Iñaki Izeta Iriondo, Orion, apirilaren 17an. 74 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

JON ALBUERNE | DJ'A

"Gustura arituko nintzateke Orioko edozein tabernatan"

Musika elektronikoaren zale amorratua duzue 23 urteko oriotar hau. Bere kasara ikasi eta gero, DJa da egun, musikaren sukaldari modukoa, erritmoen nahasketetatik berriagoak sortzen artista.

Noiz eta nola ezagutu zenuen nahasketen mundu hori?
Hiru urte inguru izango dira, nire lehen ekipoa erosi eta biniloakeskuratzeariekin nionean. Jakin-mina asetu nahi nuen eta antzeko zaletasunak dituen inor ezagutzen ez nuenez, internetez hasi nintzen informazioa bilatu eta DJ panorama ezagutzen. Nire kasara ikasi nuen.

Esplikatu iezaiguzu "pintxatzea" zer den
Diskoak bata bestearen atzetik sartzen badituzu, erraza da oso. Bitarte horretan erritmo eta soinuak sartzea da gakoa, horrek du grazia. Diskak abiadura jakin batean jartzen dituzu eta nahasketak egin. Hortik aurrera eta norberaren imaginazioaren arabera, milaka aukera dituzu: ekualizazioak, faderrarekin jolastu...

Eta estiloak?
Hasteko, estilo mordoa daude. Gainera, joera dago edonork erritmo ezberdinak nahastu ondorengo emaitzari beste izen bat jartzekoa, pentsa, beraz. Ez naiz estilo jakin batera mugatzen, baina batzuk aipatzearren House eta Techno direlakoak aipatuko nituzke.

Zein tresna erabiltzen duzu?
Binilozko diskoentzako bi plato berezi ditut, eta horiekin batera nahasketa mahaia hiru kanalekoa, bakoitza bere ekualizazio eta guzti. Eta aurikularrak, jakina. Hortik aparte, bozgoragailuak edo efektuak sartzeko tresnak ere badira, baina garestiak direnez, denborarekin erosi beharko ditut. Eta nahasketetarako, binilozko diskoak barra-barra, besterik ez. CDen aldean bestelako xarma dute horiek eta Donostian eskuratu ohi ditut, kontu hauetan adituak diren denda batean eta ahal bada, hilero.

Argazkian Ziripot tabernan. Bertan arituko da maiatzaren 7an. JON ALBUERNE

Ez naiz estilo jakin batera mugatzen, baina batzuk aipatzearren Techno eta House direlakoak aipatuko nituzke

Lekuak ez dauka garrantziarik menua ona bada. Orioko edozein tabernatan aritzeko prest nago ni

Gustuko DJrik?
Bat aipatuko dut, Imanol Donostiako Intermusic dendakoa. Urte mordoa darama honetan, pentsa, gaztetxoa zela Donostiako KU diskotekan hasi zen. Brasilen, Canadan, Erresuma Batuan eta beste hainbat lekutan egona da, eta Oiartzungo Pagoan aritzen da askotan. Gehiago ere badira, baina Imanolekin geratzen naiz.

Eta zu?
Nirea bestelako kontua da. Pasa den irailean parte hartu nuen Pagoan izandako festa batean. Tarteka Donostiako Ziripot tabernan ere aritzen naiz, eta hurrengo saioa ere bertan egingo dut, maiatzaren 7an. Nitaz aparte, jende asko aritzen da honetan eta ez da erraza lekua egitea eta, alde horretatik, eskertzekoa da horrelako tabernek ezezagunak garenoi ere aukera ematea.

Saio baterako menua?
House lasaiarekin hasi eta gutxinaka erritmoa bizitzen joan, progresio baten ondoren, Techno gogorrenean amaitzeko. Horrela antolatzen ditut nik saioak, jendearen erantzunaren arabera, beti ere, jarriko dudana ez baitut aldez aurretik prestatuta eramaten. Saioaren iraupena, berriz, taberna ixteko orduak jar dezake.

Menua badugu, eta lekua?
Lekuak ez dauka garrantziarik menua ona bada. Nire partetik, Orioko edozein tabernatan arituko nintzateke, eta ekipoa non jarri eta lasai aritzeko txoko bat prestatuz gero, primeran. Ez dakit tabernaririk animatuko litzatekeen saioa antolatzera ezta jende asko hurbilduko litzatekeen ere, baina, nire herria izanda, poztuko nintzateke daudenak gustura eta dantzan ikusita.

Eskabetxerak bazkaritan

Latak egiten eta arrainei burua kentzen aritzen ziren emakumeek bazkaria egiten zuten urtean behin. Papera jartzen omen zuten eskabetxerian izena emateko eta, zerrenda hala osatuta, Hondarribiara joan ziren goiko argazkiko koadrila 1961 inguruan.

Behean ezkerretik hasita hauek dira fotografiakoak: Silbestra Sarria, Inaxi Etxezarreta, Genobeba Etxezarreta, Maria Gozategi, Pilar Zumeta, Mertxe Oliden, Kontxa Larraza (enkargatua), Maria San Sebastian (Kontxaren alaba), Maite Ibarrola, Maria Anjeles Solaberrieta eta Antonita Manzisidor.

Mertxe Oliden izan zen bazkaritara joan zen neska gazteena, eta beren artean adinean aldea badute bistan denez. Lanean bakarrik ez, beraz, festarako ere heldu eta gazte elkartzen ziren, garai hartan generazioen artean hartu eman estua baitzegoen.

Inaxi Etxezarretak ere alabak konbentzitu nahi izan zituen Hondarribira joateko baina alabatako batek esan digunez —Mari Karmenek— ez ziren animatu eta ama bakarrik joan zen.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
M. KARMEN GURRUTXAGA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARAra eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Kinkiladenda- Ume arropa
argine
www.lasonet.com/argine
Eusko Gudariak, 9 ORIO
Tel.943 13 48 89

Pelukeria eta esteetika mistoa
ZISS
- Tinte kopetakoak eta koloraziozko produktuak
- Bestilaretarako tinte iraunkorra
- Azkazal sakonketak
- Pedikura
- Depilazioa
San Nikolas, 1 Tel: 943 83 31 70

Zaragueta Eskola Orio
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Gabon TABERNA
plater konbinatuak eta pintxoak
Tfnoa: 943 83 06 09

Photomuseum
artxiboa